

# Aretxagazeta

## Ekintzaz betetako Negu Kulturala



**ETA GAINERA...**

### Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Aupa  
Kintxo! /8**

HURRETIK

**Maje  
Umerez /9**

LEINTZ GATZAGA

**Benedikto  
Elkorobarrutia /10**

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 8**  
 FRAILE J. Herriko plaza 10. .... 943 79 21 99

**DOMEKA, 9**  
 FRAILE J. Herriko plaza 10. .... 943 79 85 83

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen ..... 943 71 49 07  
 ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21  
 Fax ..... 943 77 18 54  
 Basotxo ..... 943 77 09 81  
 Euskaltegia ..... 943 79 21 68  
 Gizarte-Laguntzailea ..... 943 71 18 62  
 Hezibide Elkartea ..... 934 79 31 32  
 Industrialdea ..... 943 79 62 80  
 Institutua ..... 943 79 79 00  
 Kiroletxea ..... 943 71 26 28  
 Kultura etxea ..... 943 71 10 27  
 Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49  
 Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40  
 Liburutegia ..... 943 71 18 62  
 Loramendi EE ..... 943 77 09 70  
 Ludoteka ..... 943 79 05 81  
 Mankomunitatea ..... 943 79 30 90  
 Murruxiko ME ..... 943 79 93 74  
 Musika Eskola ..... 943 79 36 50  
 Osasun zentroa ..... 943 79 74 58  
 Otalora ..... 943 71 24 06  
 Parrokia (Bulegoa) ..... 943 79 18 42  
 Pausoka Haur-Esk. .... 943 77 03 77  
 Postetxea ..... 943 79 28 31  
 Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00  
 Saretxo ..... 943 71 26 56  
 Taxi Geltokia ..... 943 79 22 33  
 Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62  
 Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63  
 Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALTAINGOA**  
 Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

SOS Deiak ..... 112  
 Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
 Ertzaintza ..... 943 79 71 99  
 Gurutze-Gorria ..... 943 76 55 76  
 Larrialdia ..... 943 46 11 11  
 Suhlitzailak (Oñati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
 Domekak: 11:00, 12:00  
 Zapatuak: 19:30  
 Lanegunak: 19:30

**SANTA RITA**  
 Domekak: 09:00  
 Zapatuak: 18:30  
 Lanegunak: 08:00

**BASERRI AUZOETAN: ARIENTZA**  
 Domekak: 12:30

**GALARTZA**  
 Domekak: 11:30

**OHARRAK**

**AIDAR GAINULLIN AKORDEOILARIA**  
 Negu Kulturalako egitarauaren barruan, Aidar Gainullin akordeoilari errusiarrek kontzertua eskainiko du bihar, hilak 6, parrokiaren, 20:00etan.

**ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETA**  
 Udal Kultura Sailak, urtero legez, komertzioen erakusleio lehiaketa antolatzen du. Erakusleioak abenduaren 8tik 31 bitartean egon beharko dira apainduta.

**SAN MARTIN-SAN JOSE KOFRADIAREN BATZAR OROKORRA**  
 Herriko kofradiak batzar orokorra egingo du abenduaren 8an Kurtzebarri eskolan, 11:00etan. Besteak beste, zuzendaritza batzordearen osakeraren berri emango dute.

**SAHARAKO KANPAMENDUEN GAINEKO HITZALDIA**  
 Gurutze Irizarrek Saharako errefuxiatuen historia eta bizimodu eta egoeraren gainean hitzaldia egingo du abenduaren 13an Murruxikoko egoitzan, arratsaldeko 19:00etan.

**MAKREA GAZTETXEAN**  
 Makrea irlandarrak antzerki ekitaldia egingo du abenduaren 14an gaztetxean.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**BEÑAT ACHIAI ETA JOEL MERAH KONTZERTUAN**  
 Beñat Achiay eta Joel Merah iparraldeko bikote musikagileak kontzertua eskainiko dute abenduaren 14an Kurtzebarri eskolako areto nagusian, gaueko 22:30ean. Hainbat musika instrumentu aldean dituztela, doinu arraro bezain politak eskainiko dituzte.

**ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN**

**Jon eta Aitor Sarasuaren diskoa kaleratu zen**

*Fauna berri txiki bat bertso berri-tan* diskoa kaleratu zuten duela sei urte Jon eta Aitor Sarasuak. Urtebetez emanaldiak egiten jardun ostean grabatu zuten 12 bertso musikatzuz osatutako lana. Kolaboratzaile gisa Juan Luis Lekunberri eta Iñaki Garmendia aretxabaletarrak ibili ziren.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru.**

*“Lapikokua”*

Eltzekoa, lekale egosiak.  
*-Lapikokua jan ezker eztaur besterik biar izaten.*



**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**‘Ordaina zor nizon’**

*Justo Badiola* argazki denda baten jabe da eta bakar-bakarrak bizi da lasaitasun handiz. Baina halako baten gutun anonimoen bidez hilaketa misterioitsu batzuei buruzko ipuinak eta argazki zatiak jasotzen hasiko da. Gutun horiek nor eta zergatik bidaltzen dizkion argitu arte puzzlea *Justo*ekin batera aratu beharko du irakurleak.



**ORDAINA ZOR NIZUN**

Joxemari Urteagag Elkarlanean 279 orrialde

Joxemari Urteagag ipuin idatzi izan ditu orain arte, eta oraingoan sei ipuin “beltz” sartu ditu intrigazko azpijoko batzuei buruz, bere lehen nobela osatu zeko. Irakurketa oso arina eta ten da eta misterioa argitu nahian bukaeraraino eramaten gaituzten biziaren.

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA


**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETAKO **Mª Carmen Fuensanta** 4an. Zorionak eta urte askotarako, Gureako lan-kideen partetik.




ARETXABALETAKO **Maitane Dávila** 7an, 2 urte. Muxu handi bat, etxeko partetik!



ARETXABALETAKO **Mirari Ayastuy** 12an. Muxu handi bat, Josu, Amaia, Aitor eta beste guztien partetik.



ARETXABALETAKO **Felis Beltran de H.** 13an. Muxu handi-handi bat, Alaitz, Eñaut eta Mirariren partetik.



ARETXABALETAKO **Anabel Aranzadi** 13an. Zorionak, koadrokoen partetik.



ARETXABALETAKO **Izaskun Irure** 13an. Zorionak eta urte askotarako! Etxeko guztien partetik.

**Zorionak!**  
 Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez!  
 Ekar ezazu bere argazkia eta emaiizu ezusteko ederra! **Doan!**  
 Durana, 11.

BABESLEA

**Zorionak denoi !!**

Foto

**Urkiola**

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5  
 20550 ARETXABALETAKO  
 TELEF 943 79 39 20

\* ESTUDIOAK  
 \* ESKONTZAK  
 \* JAUNARTZEAK  
 \* ENMARKAZIOAK  
 \* DIGITAL LANAK  
 \* KAMARAK ....

Beti karretean edo albuma dohanik!

**Lasai**

Masaje terapeuta koan Posturen azterketa eta egokitzean diplomatu

Mirian Manteca **MASAJISTA**

Lezama merkatal zentrua Santa Kurtz, 24 etxabea 20550 Aretxabaleta

**Tel.: 943 77 04 34**

**Dorleta taberna**

Bezereen zerbitzura


Loramendi, 8 Aretxabaleta Tel.943 79 94 15

**LEIBAR**

arrandegia

Mitarte Kalea, 1 Tel.: 943 77 13 79 Aretxabaleta


## ATREBENTZIAEZPADA/ Zubixen kanpora fateko asmorik badaukotzu?



**IBON AGIRRE**  
Langillie




**PURI BELTRÁN DE HEREDIA**  
Langillie




**FELIX ZUBIA**  
Langillie



**Mª CARMEN FUENSANTA**  
Langillie



**JULEN GARCÍA**  
Langillie



**IRATXE BENGOA**  
Langillie

Ez. Jai dauket, baiñe kanpora fateko asmorik ez. Aretxabaletan be badauket ze egiñik asko, eta hamen geratuko naz. Hala be, Durangoko azokaraiño fateko astixe hartuko dot.

Bai, Soriara fango naz, egun baten fan eta hurrenguen etorri. Hirixe bera ezaguketan dot, baiñe herrixek ez eta horreik ikusten noie. San Satullo Soriako patroiarren ermittara be fango naz.

Ez, ez noie iñora. Abendue motza izeten da eta seguru asko lana egin biherko dot. Eskietan fatie gustetan jat, baiñe berandutxuago, otsail inguruen fan izen naz Alpietara.

Lau egun jarraixen jai daze-nien aprobetxau egin biherda, bestela... Bai, Sevillara fango naz lagunekin. Ez dakit ze topauko dogun, baiñe ondo pasetako asmue dauket.

Bai, Naparruera fango naz, San Adrian eta Lerin herri-xetara. Normalien hillien behin-edo hara fatie gustetan jat, familixakuek dauket-eta. Oinguen lau egunek pasauko dittut han.

Iparraldera fango naz lagunekin. Bidarrainen dagoen aterpetxe baten hartu dogu lekue. Oso leku politte ei da eta mendixen tra-besia batzuk egitteko asmo-tan goiez.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK MENDI ASTEKO PARTE HARTZAILEAK** Lanetik kanpo antolatzen diren kirol eta kultura arloko ekintzetara betiko laurak besterik ez dela joaten sinistuta geunden, baina ez. Edurne Pasa-banek Murruxikoko lokala goraino betetzea lortu zuen. Hori bai, hitzaldia oso interesgarria izan daiteke nahiz eta hizlaria ez izan ezaguna, hortaz, aurreiritzi barik etorri hurrengoan. /MIRARI ALTUBE

## ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /4

KIROLAK /6

NIRE BIDAIA HURA /7

### Andra Mariko etxebizitzak

Andra Mari auzuneko etxebizitzak aurrealdeak berritzea erabaki dute auzotarrek.

### Kirol Politikako Topaketak

Kirol Politikari buruzko VIII. Topaketak egingo dira abenduaren 13an Otolara jauregian.

### Jose Benito Ayastuy

Iaz, udan, Israelera egindako bidaiaren gorabeheren berri eman digu Joxe Benito Ayastuyk.

## ASTEKODATUA

# 4.500

### BAZKIDE DITU SAN MARTIN-SAN JOSE KOFRADIAK

Aretxabaletako San Martin-San Jose Kofradiak, aretxabaletar eta kanpotarren artean ia 4.500 bazkide ditu. Urtero bezala, datorren abenduaren 8an batzar orokorra egingo du Kofradiak.

## BESTEKEESANA

**“ Kamera atzean, duda barik. Kamera aurrean..., batzuei gezurra irudituko zaie, baina ni oso**

**lotsatia naiz, eta kamera atzean hobeto. Atzeko lana gustukoagoa dut. Nik horretarako ikasi dut azken finean, nik ez dut ikasi kamera aurrean lan egiteko, ez naiz kazetaria, errerealizazio lanerako ikasi dut eta zorzea daukat, horretan bainabil.**

**ETBn Jaiak programan lan egiteko casting batera aurkeztu nintzen. Jaiak bi urtean ibili naiz eta nahikoa da. Kamera aurreko lana egin dut, eta lehenengo aldian gogoz egin nuen, hilabete batzuetan, urtebetez, animatu egin nintzen. Bigarren aldian, nekezago, erdi behartuta sartu nintzen, nahiago dut kamera atzeko lana.**

**IBAN GONZÁLEZ**  
Arrasate Irratia/01-11-14

## HERRITARRENBERBAK/ Xabier Sarasua



### Atxabalta espeziala

**R**iiiiiiii! Goizeko 7rak. Kantuen nenbilen amestetan. Txikitxotako kantu bat: *Ni bizi naiz herri baten dala, Atxabalta! eta gogorak ere bagera...*

Buelta erdia eman dut. Geure herria espeziala eta eredu-garria dela pentsatu izan dut: errealtate kooperatiboaren aitzindari, ikastola mugimenduaren gotorleku, bertso eskolen sortzaile...

Bestekaldera buelta barriro. Azken aldiko kontu batzuek ostera, arruntak eta eskasak gara pentsatu eragiten didate. Ikastolako umeak erderaz dabilta barra-barra, Lagun-Aroko neure mediku txostena moduan. Herriko gazteak asteburua noiz helduko zain, kokaina edo speed bidaia bat egiteko. Herritarrak, berriz, globalizazioaz kezkatuta, hau da, euroarekin zenbat garestituko diren tabakoa eta txikitoa.

Riiiiii! Bigarren jaiki naiz gaur, ez dago txarto. Eguneroko albisteez higuinduta kasetaxotzea erabaki dut. Xabier

Lete, “Gizon arruntaren koplak”: *Gauzak gaizki dabilta, hau da komeria! Afganistanen gerra piztu zuten ia. Baldin tokatzen bazait aurten loteria, erosi beharko det zitroen berria. Ongi egon omen san Tolosan feria.*

Tolosan ez dakit, baina zenbat jende egongo da aurten be-

Santamasetan txarriarena egiten? Zitroenak, barrez, karuak eta modernoak ikusten dira herrian. Loteria kontuetan, jakin gura nuke zenbat emango dioten aurten be atxabaltarrek estatuari. Hiruatxan proiekturako halako hoge-

baietz! Gerra? Penagarria, baina geure artean be batzuk amerikanoak letxe eta beste batzuk gero eta Talibanen itxura handiagoaz. Hau da komeria! Ez dabilta ez gauzak oso ondo.

Komunera noa. Zapatuan desobedientzialarien 2. biltzarrera fan beharko dugu, behintzat. Bailaran taldetxo bat sortzea ez zen txarto etorriko. Hemen dagoen potentzialaz, geuk be zerbait egin beharko dugu ba?

Ene, gaur be berandu lanera.

**“Hemen dagoen potentzialaz, geuk be zerbait egin beharko dugu ba?”**

# Aretxagazeta

Durana, 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



## BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Musikatik  
futbolera

Espainiako gobernu eta Euskal Herrikoa kontzertu ekonomikoa dela eta ezin konpondu dabil-tzan honetan, herrian bestelako kontzertuei helduko diegu. Izan ere, zubi luze honetan musika entzuteko aukera ederra izango da, **Aidar Gainu-Ilin** akordeoilari errusiarren eskutik. Parrokian emango du kontzertua bihar.

Musikatik futbol kontzertuara pasatuz, Udak hurrengo partidua ezingo du Ibarran jokatu, aurreko partidu batean zigorra jaso zuelako. Eta hain justu derbia tokatzen zaio, oñatien kontra. Jakin dudanez, Udak ahaleginak egingo ditu, derbia etxean jokatu, eta zigorra beste partidu baterako aldatzeko, baina ez dakit lortuko duen. Hori hurrengoan kontatuko dizuet. Bitartean zubi luzean ondo ibili, baina kontuz, errekarra jausi barik.

Andra Mari auzuneko  
etxebizitzak berrituko dituzte

MIRARI ALTUBE

Andra Mari auzuneko etxeen aurrealdeak goitik behera berrituko dituzte. Hala erabaki zuten auzotarrek joan den martitzenean egindako batzar orokorrean.

Urtebete izango da Andra Mari auzuneko bizilagun batzuek etxebizitzak konpondu beharra zutela konturatu eta gaia Udaletxera eroan zutela. Geroztik gorabehera asko izan da, baina martitzenean izan zen batzar orokorrean aurrera egitea erabaki zuten.

## HOGEI HILABETEKO LANAK

Andra Mari auzunean 11 artate daude, eta horietatik 10 zaharberrituko dituzte, guztira, 95 etxebizitza eta beste hainbat etxabe komertzial. Isabel Martí arki-

tektoak egin du proiektua eta Gasteizko IDHECO enpresa erakitzaileak egingo ditu lanok. Horretarako, 20 hilabete izango ditu; 2002. urteko urtarrilean hasiko dira etxeen aurrealdeak berritzen.

Andra Mari auzuneko etxeek 40 urtetik gora dituzte. Tarte horretan margotu baino ez dira egin, beste konponketarik ez dute egin. Hori dela eta, itxura eskasa daukate, ez hori bakarrik, arazoak sortzen ere hasi dira: haize zakarra egiten duenean fatxada zatiak behin baino gehiagotan erori dira kalera, eta hainbat etxebizitzatan hezetasun arazoak dituzte.


Horren guztiaren aurrean, etxebizitzak konpontzea erabaki dute auzotarrek, eta Udalaren laguntza ere jasoko dute, 150 milioi inguruko aurrekontua duen zaharberritze lanak egiteko.



MIRARI ALTUBE

Etxeek itxura eskasa izateaz gain, gero eta arazo gehiago dituzte auzotarrek.

## TXUTXUMUTXUA



## Txan magoarekin aho zabalik

Magoek beti sortzen dute lilura eta miresmena. Errealitatearen eta ilusioaren artean dagoen muga horretan mugitzen direlako, seguru asko. Gainera, *Harry Potter* dela eta, moda-modan daude. Gurean *Harry* ez, baina Txan magoa izan zen egubakoitzean. Ikuskizunera hurreratu ziren umeak aho zabalik utzi zituen Txanek. Bat baino gehiago saiatu zen trukua non zegoen topatzen, baina ezin. Ea hurrengoan nagusiendako ekar-tzea lortzen duten Loramendi euskara elkarteok. /M. A.

Udalatx  
Inmobiliaria

Sail eta etxebizitzaren  
salmenta  
Eskoriatzan

Tel.: 943 79 59 99  
Faxa: 943 79 92 00  
Maalako Errabala, 27 behea-ekz.  
ARRASATE



## BASTER ALDE jatetxea

SASOIKO JAKIAK GIRO ONENEAN!

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA

JOSU  
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08

## Lubia



zapatak, zapatilak,  
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14. Tel.: 943 79 16 00  
ARETXABALETA  
Biteri 1. Tel.: 943 79 66 53  
ARRASATE



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA


Zuzendaria:  
**Lyonel  
Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya  
Arquero**

REGI ONDO

optika

Loramendi, 10  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 98 21



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

**KULTURA/** Abenduaren 6tik urtarrilaren 19ra bitartean hainbat ekintza izango dira ikusi, parte hartu eta gozatzeko

# Adin guztietara egokitutako egitaraua eskainiko du aurtengo Negu Kulturalak

MIRARI ALTUBE

Urtero legez, aurten ere, hainbat ekintza antolatu ditu Udaleko Kultura Sailak abendu-ko eta urtarrileko egunei jai itxura emateko. Kontzertuak, erakusketak, Olentzero, Bizar Zuri, Errege Kabalgata, pailazoak..., egongo da bai non eta zer aukeratu aurtengo neguan.

Negu Kulturalako egitaraua atera berri du Udaleko Kultura Sailak, eta aukera ugari dago neguko hotzari aurre egiteko.

## GUSTU GUZTIEN DAKO EKINTZAK

Gustu guztiak aseko dituen egitaraua egin gura izan du Kultura Sailak: kontzertuak, akordeoi orkestrak Musika Eskolako ikasleek eskainiak, Juan Jose Altuna margolariaren ikasleen margo erakusketa, Sahararen gainean berbaldia; eta urtero izaten diren beste hainbat ekintza: Olentzero, Bizar Zuri, Errege Kabalgata, Poxpolin Park eta, zelan ez, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia. Horrez gain, herriko dendariak ere saiatuko

dira euren erakusleihoak txukun eta dotore atontzen, erakusleiho lehiaketan parte hartzeko.

## IAZ BAINO EKINTZA GUTXIAGO

Iazko egitarauaren antzekoa egingen saiatu badira ere, iaz baino ekintza gutxiago antolatu dituzte aurten. Inma Miguel Kultura teknikariaren esanetan, "ez du merezi ekintzak antolatu eta antolatu ibiltzerik, jendeak ez du eta parte hartzen. Iazko eskarmen-tuaren ostean, ikusi dugu gauza berriak ekartzea baino hobe dela betiko ekintzak indartzea, Olentzero, Poxpolin Park edo Errege Kabalgata, esaterako".

Horrela, bada, egitarauan adin guztiei egokitutako ekintzak sartzen saiatu badira ere, umeak izango dira, zalantza barik, protagonista Gabon inguruan: "Poxpolin Parkean iaz baino tailer gehiago sartuko ditugu, inor ez dadin aspertu", dio Inmak. Jakin dugunez, gainera, aurten, Olentzero ez da idiekin gurdian etorriko, badirudi idiak min hartuta dituela. Hala ere, inor ez dadila larritu, etxe guztietara helduko da eta opariak ekartzera.



Aurten ere ume eta gaztetxoak pozik hurbilduko dira Kirol etxean jarriko den Poxpolin Parkera.

ARTXIBOA



ERA GUZTIETAKO ATEAK



HORMA-ARMAIRU TOLESGARRIAK

## Azkarate: arotz lanetan behar duzun guztia

ATEAK • LEIHOAK • HORMA-ARMAIRUAK • TARIMAK • PARKETAK



**AZKARATE**  
AROTZEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 01 24

**ARDATZA**  
Brikolaketa

Masterreka, 4 behe.  
Tel.: 943 76 18 93 • BERGARA



HORMA-ARMAIRU IRRISTAGARRIAK

KIROL POLITIKAREN INGURUKO TOPAKETAK

# Kirol Politikaren gaineko VIII. Topaketak egingo dira Otaloran

Kirol elkarten orainaren eta geroaren gainean egingo da hausnarketa

MIRARI ALTUBE

Datorren abenduaren 13an, Kirol Politikaren gaineko VIII. Topaketak egingo dira Azatzako Otalora jauregian. Bi urtean behin egiten diren topaketa horietan kirol elkarten oraina eta etorkizuna izango dira hizpide eta eztabaidagai aurten Aretxabaletan.

Jende ugari bilduko da datorren abenduaren 13an Otalorako jauregi inguruan kirolaren gainean berba egiteko. Ez bakarrik berba, hausnarketa sakona egingo da kirol elkarten orainaren eta geroaren inguruan. Asier Muxika Aretxabaletako Kirol teknikariaren esanetan, "gero eta zailagoa da kirol elkarteetan lan egin gura duen jendea aurkitzea, eta horixe izan da aurtengo gaia aukeratzeko arrazoia".

**AGINTARIAK ETA KIROL TEKNIKARIAK**  
Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako agintari ugari hurreratuko da Azatzara. Lehenengo hitzaldia Patxi Agiriano Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Saileko zerbizuburuak egin-



ARTXIBOA

UDAK jende berria sartu gura izan zuen batzordean, baina ez zen inor aurkeztu.

go du. Gazteria izango du hizpide hark, demografia arazoak eta haien eragina kirol arloan. Bigarren hitzaldia kirol elkarten gaur egungo egoeraren eta etorkizunerako aurreikuspenen gainean izango da. Bultzatu behar den kirol elkarte eredu ere proposatuko dute hizlariek.

Eguna amaitzeko, bazkalos-

terako ordu eta erdiko mahai ingurua antolatu dute. Hala, kirol elkartegintza bultzatzeko hartu beharreko neurrien proposamenak zehaztuko dituzte. Bost partaidek osatuko dute mahai-ingurua, eta haien artean Rafa Etxeandia egongo da; Bixente Etxeandia UDako presidentearen izenean joango da Rafa.

XAKEA

## Gasteizen irabazi ostean, etxean galtzea tokatu zitzaizen Bilboko taldearen aurka

Asteburuan hasi dute Euskal Liga aretxabaletarrek, eta zapatuko partida irabazi egin zuten Gasteizen. Domekan, berriz, talde gogorra izan zuten aurrez aurre, eta galtzea tokatu zitzaizen. Izan ere, Bilboko Rey Ardid taldean Mario Gómez "Maisu Handia" jokatzeko du, hainbat aldiz txapeldun izandakoak. Hala ere, Fra Miguelen eta Marioren arteko partida berdinduta bukatu zen.

FUTBOLA

## Domekan, Arrasateko Atxabalpen jokatu du preferenteak Aloña-Mendiren kontra

Lehiaketa batzordeak jarritako zigorra dela-eta, datorren partiduak Arrasateko futbol-zelaian jokatu du preferenteak. Partidu garrantzitsua izango da, batetik, oñatiarrak izango dituelako aurrez aurre, eta bestetik, azken partiduak galdu ostean irabazi behar duela duelako, lehenengo postuetan jarraitzeko. UDAk autobusa antolatuko du. 15:00etan irtengo da Azbetik, eta txartelak Gurean daude.

### KARTELDEGIA

#### FUTBOLA

**UDA-Aloña-Mendi**  
Preferentea.  
Domeka. 15:30. Atxabalpe.  
**UDA-Gazteak**  
Bigarren mailako erregionala.  
Eguena. 16:00. Ibarra.  
**Balmaseda-UDA**  
Gazteen Euskal Liga.  
Eguena. 12:00. Balmaseda.

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

**Bergara 5 UDA 2**  
Preferentea.  
**UDA 0 Eibar 2**  
Gazteen Euskal Liga.  
**Urki 2 UDA 2**  
Bigarren mailako erregionala.  
**UDA 2 Eibartarrak 3**  
Bigarren mailako gazteak.  
**UDA 3 Lengokoak 0**  
Lehenengo mailako kadeteak.  
**Eibartarrak 1 UDA (b) 1**  
**UDA 1 Amaikak bat 2**  
Bigarren mailako kadeteak.

#### PILOTA

**Txapagain 22 Aretxab. 6**  
Kadeteak.  
**Aretxab. 18 Andazpe 22**  
Gazteak.  
**Aretxab. 14 Murumendi 22**  
Gazteak.  
**Aretxab. (1) 22 Aretxab.(2) 6**  
Seniorrak.

### FRUITATEGIA

Barazki  
eta frutetan  
espezialitatea

Tel.: 943 79 96 43

ERREKABARREN

### ILEAPAINDEGIA

ILE APAINDEGIA  
ESTETIKA  
SOLARIUMA

Tel.: 943 79 80 90



IRUDI

### URDAITEGIA

kalitatezko  
produktuak

Tel.: 943 79 75 42

JUANTXO

## ERREKABARREN

### DROGERIA

GUSTU  
GUZTIETARAKO  
ZAPIAK

Tel.: 943 79 78 63

LEINTZ-ROSI

### OINETAKO DENDA

ZAPATEN  
KONPONKETAK  
EGITEN DIRA

Tel.: 943 79 59 85

MARI KARMEN

### ARRANDEGIA



ITSASOKO PRODUKTUAK

Tel.: 943 79 31 59

MIREIA

MUNDUTARRAKARETXABALETAN

MARI ANGELES ARBULO

ADMINISTRAZIO LAGUNTZAILEA / SEVILLA

“Hemengook gatzgabe fama  
duzue, baina oso  
txistezaleak zarete”

AMAGOIA LASAGABASTER

S enitartekoak zituen M<sup>a</sup> Angelesek Aretxabale-  
tan; hala, lehenengo  
aldiz 18 urterekin eto-  
rri zen Aretxabale-  
tara haiek bisitatzera. “Administ-  
raritza ikasketak bukatu nituenean,  
gurasoek hona etortzeko  
bidaia oparitu zidaten”. Gero-  
ra, paraje hauekin guztiz mai-  
teminduta, urtero-urtero hasi  
zen Aretxabale-  
tara etortzen,  
eta, jakina, bikotekidea ere  
hementxe aurkitu zuen.

M<sup>a</sup> Angelesen esanetan,  
berhala ohitu zen hemengo  
bizimodura. “Senarrak elkar-  
te gastronomikoetara erama-  
ten ninduen, eta lehenengo  
euskal abestiak hantxe ikasi  
nituen, *Boga- boga* eta horre-  
lakoak”. Parajeak ere asko  
erakarri zuen, mendirako zale-  
tasunak, berdetasunak, baita  
hemengo klimak ere. “Neguan  
elurra ikaragarri gustatzen  
zait, eta udan, berriz, hemengo  
beroa Andaluziakoa baino  
askoz osasuntsuagoa da”.

Jendeari dagokionez,  
hemengook daukagun  
gatzgabe fama ere ez dela  
gustiz egia esan digu: “Oso  
jende atsegina eta  
alaia dago hemen; Anda-  
luziako eguzkiak beti  
alaitzen du per-  
tsona, baina  
euskaldunak txis-  
tezaleak dira oso,  
eta niri barre  
egitea gusta-  
tzen zait”. Bai-  
na, hala ere,  
hiri handi  
batetik base-  
rri gune ba-  
tera -hark  
dioen mo-




duan- etortzea gogorra egin  
zitzeaion. “Andaluziarra naizen  
aldetik oso berritsua naiz, eta  
hona etortzean, gainera base-  
rri batera, horixe igarri nuen  
faltan: jendea, berba egiteko”.  
Baina esan digu orain baserria  
ez daukala saltzeko. Jendearen

“Senarrak elkarte  
gastronomikoetara  
eramaten ninduen;  
han ikasi nituen  
euskal abestiak”

arteko harreman estuak ere  
harritu zuen M<sup>a</sup> Angelesek:  
“Sevillan, asko jota, nire ondo-  
ko bizilagunak ezagutzen  
nituen; hemen, berriz, kalean  
guztiak agurtzen ditut”.

M<sup>a</sup> Angelesek Sevillan fami-  
lia guztia utzi zuen, eta orain-  
dik sarri joaten da bisitan: “Ni  
hara eta hona bidaiak egi-  
ten hilko naiz, Aretxa-  
bale-  
tara nagoenean  
Sevilla igartzen dut  
faltan, eta han na-  
goenean, berriz,  
hemengo berri-  
entzutea-  
rekin bat  
hunkitu  
egiten  
naiz”.

HURRETIK



Bixente  
Etxeandia

UDAKo presidentie

Ondo baiño hobeto ezaguketan dau  
Bixente Etxeandia futbol girue.  
Gaztetan, makiña bat taldetan ibilitta-  
kue da, tartien, baita Alaves eta  
Realien be. Oin, UDAKo presidentie da.

Zenbat urtien UDAKo presidente?

Aurten, zortzigarren urtie da.

Eta noix arte lan horretan?

Auskalo, jentiek gure dauen arte.

Jugadore moduen zenbat urte egin  
zittuen profesional moduen?

Hamazazpi. UDAn, Alavesen, Granadan,  
Realien eta beste talde batzuetan be ibi-  
littakue naz.

UDAKo preferentiek tenporada ona  
dabil egitten, ezta?

Bai, duda barik pozik gagoz, hala eta be,  
txarto dabitzenien be, gu hortxe egoten  
gare.

Gustoko talde bat?

Nire lenengo taldie UDA da, duda barik,  
eta bigarrena, Alaves.

Eta Realia?

Horreik be irabazi daixiela partiduek!

Bartzelona edo Real Madril?

Bixek parra niri.

Ze gurago, palkuen edo zelaixen joka-  
ketan ibilttie?

Zelaixen ibilttie, duda barik.

Txartel gorrixen zeinei?

Niri ez dustie sekula gorririk atara,  
orduen, nik be ez neuskio inori atarako.

Sekula egon dan jugadorerik onena?

Askio egon die, bat esatiarren, Zubizarreta  
oso portero ona zan niretako.

Beste afiziñorik badauketu?

Pelotie be askio gustetan jat.

Telebisiñuen futbolaz aparte beste  
zeoze ikusten dozu?

Bai, Goenkale.

UDAKo preferentiek zein postutan  
bukatuko dau ligie?

Ikusi egin biher hamendik aurrerakuek!

A.L.

NIREBIDAIAHURA / Joxe Benito Ayastuy


Israel / 2000ko abuztuan

J ubileo Urtea aprobetxatuz egin zuen Joxe Benitok  
Israelerako bidaia. Lehenago ere izana zen herrial-  
de hartan, baina berriro ere joateko gogoarekin zebi-  
len eta aukera ona irudi zitzaion 2000. urtean erro-  
mesaldi moduan Israel bisitatzera.


Bilboko frantziskotarrek antolatutako bidaietan joan zen  
Joxe Benito. Hartara, aipatu digu hango tokiak hobeto  
ezagutzeaz gain, talde moduan  
errazago bidaiatzen dela.  
“Hainbat hizkuntza jakin  
behar dira bidaiatzeko, eta nik  
ez dakizkit, horregatik gidari  
batekin errazago izan ohi da  
tokian tokiko ohitura eta  
lekuak ikustea”. Joxe Benito  
zazpi egunez ibili zen Israelen,  
eta bidaia motza dirudien  
arren, leku ugari bisitatu  
zituen, batez ere, elizak. “Nirea  
erlijioak bultzatutako bidaia  
izan zen, hortaz, batez ere, Kris-  
to jaio, bizi eta hil zen lekuak  
ikusten ibili nintzen”. Belen,  
Nazaret, Jerusalem, Kalbario  
Bidea, Hilobi Santua... horre-  
lakoak bisitatu zituzten. Hala  
ere, beste erlijio batzuetan ere  
murgildu zen Joxe Benito. Isra-  
elen egonda, meskitak eta bes-  
telako tenplu batzuk ere ikusi  
zituzten, baita Arranguren Hor-  
man otoitz egin ere.

Bidaietan, juduen eta musul-  
manen arteko gerra hurbiletik  
bizi ez arren, haien arteko  
gorrotoaren gainean ez du iri-  
tzi onik: “Beti gerran dabilta,  
ezin ulerturik, eta nire ustez,  
horrelaxe jarraituko dute, gai-  
nera”. Horrez gain, musulmanen kaleak eta feriak nahi-  
ko zikinak zirela iruditu zitzaion. Baina gauza txarrak  
albora utzita, Joxe Benitok bidaiako oroigarriarik polite-  
na zein izan den kontatu digu: “Bisitatzeko tokirik gus-  
tukoena Hilobi Santua delakoa izan zen, historiaren ara-  
bera hantxe hilobiratu zuten-eta Jesus. Horrelako lekue-  
tan sartzek emozio ikaragarria eragin zidan”.

A.L.



Joxe Benito Arranguren Horman otoitz egiten judutarrekin batera.



“Gidari  
batekin  
errazagoa da  
lekuak  
bisitatzera”

“Nirea  
erlijioak  
bultzatutako  
bidaia  
izan da”

TXILARRA

ELIKADURA  
BEREZIA

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15  
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44

ESKORIATZA



Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda

Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)

Tel.: 943 77 13 57

ARETXABALETA

ZARAIA  
TABERNA

Goizeko 5.30etatik  
zure zerbitzuan  
Tel.: 943 79 88 93

MANTEKA ANAIK

# Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 5a / 59. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 20550 ARETXABALETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

## 'Kintxo', Takolo, Pirritx eta Porrotxen laguna, ezagutu zuten ehunka umek

AINTZANE GARDOKI

Ume eta nagusi mordo bat zen zapatuan Eskoriatzan, Takolo Pirritx eta Porrotxen laguntxo berria, Nikaragutik etorritako *Kintxo*, ezagutzera. Bostak jota hasi zuten emankizuna, eta dantzan jarri zuten kiroldedia Euskal Herriko eta Nikaraguako soinuekin.

Arratsaldeko lauretan ilara amai-gabea zegoen kiroldegiko ate nagusiaren aurrean: umeak, urduritasun handiz, eta nagusiak, irribarrea aurpegian zutela.

Hamar minutuko atzerape-narekin heldu zen Euskal Herri-tik Nikaraguara Takolo, Pirritx eta Porrotxen abioia. Han, *Kintxo* lagun berriarekin, merezitako eskarmentua eman zioten *Toribio* errege tripontziari.

Aurtengoan ere, ohiko bihurtu den moduan, Eskoriatzan egin dute emankizun berriaren estreinaldia hiru pailazook. Horrela, giro ezin hobean, ehunka umek eta ez hain umek saltoka eta dantzan pasatu zuten zapatu arratsaldea.



Saioa hasi aurretik ere umorea nagusi atze-oihalaren atzealdean.

AINTZANE GARDOKI



Argazki ugari atera zituzten Eskoriatzara joandako gurasoek

AINTZANE GARDOKI



Saioa amaitu ondoren pailazook umeak gogoz hartu zituzten

AINTZANE GARDOKI

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer gustatu zaizu gehien saioan?



ARATZ ETA AITOR  
gatzagarrak



ANA ETA JON  
arrasatearrak



ASIER ETA JULEN  
gatzagarrak



ENDIKA ETA PATXI  
aretxabalearrak



MADDI IREGI  
eskoriatzarra



IÑAKI ETA BEÑAT  
eskoriatzarrak

**Aitor:** Niri gehien gustatu zait ahuntzak zelan egin duen dantzan. **Aratz:** Niri asko gustatu zait, baina gutxien sumendiak atera duen zarata.

**Jon:** Azkeneko abestiak, nire gelakoekin dantzan egin dudalako. **Ana:** Jarri duten giroa gehien. Argiak itzalita egotea denbora guttian ez zait gustatu.

**Asier:** Takolo gustatzen zait gehien, eta Porrotxi musu ematea. **Julen:** *Azukrea* abestia dantzan egiteko, eta *Kintxo*, eta *Toribio* errege potoloa.

**Endika:** *Mama Ramona* abestia, Porrotx titiekin agertu delako. **Patxi:** Niri ahuntzak zelan egin duen dantzan eta sumendiak atera duen kea.

Dena gustatu zait, oso ondo antzezten dutelako dena. Porrotx da politena, barre gehien hark eragiten digulako denoi. Bihar bertan berriro etorriko nintzateke.

**Beñat:** Ez dakit, dena gustatu zait-eta. Bukaeran pailazo guztiakin egotea. **Iñaki:** Argazkiak ateratzea denekin, eta ahuntza, eta erregea, eta *Ramona*, eta...



## TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal Bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kiroletxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastol.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo-Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki?.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxia.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde Ospital. (Arrasate) ..	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara) ..	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate) ..	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati) ..	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga) ..	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz) ..	945 23 20 30
Pesa (Arrasate) ..	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate) ..	943 77 10 43
SOS Deiak ..	112

## OHARRAK

## 'NOLA AUKERATU JOSTAILU EGOKIA'

Hitzaldia abenduaren 11n, 18:30ean, Txatxilipurdiren eskutik


## PAKISTAN DIAPOSITIBETAN

J. Eskibelek, Museo Eskolan, 14an, 19:00etan.

## DATUEN ZUZENKETA

Industrialdeko gerentek 2.400 lanpostu izango direla esan bazigun ere, guztira 1.400 izango direla adierazi digu. Horietatik %30 berriak izango dira.

## ESKORIATZA



- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2. 1-ezk.  
ESKORIATZA  
Faxa: 943 77 07 92.  
Sakelakoa: 605 772 769

## MAJE UMEREZ / EUSKARA NORMALIZATZAILEA

# “Herritarrei Udaletxera datozenean euskaraz egiteko esango nieke”

AINTZANE GARDOKI

**Maje Umerez Azkoitiko eskoriatzarrak egin du Udal Barruko Euskararen Erabilera Plana. Ez ditu helburu makalak, eta pausoz pauso lortu nahi ditu helburuok. Plana aspalditik gauzatzan ari bada ere, ofizialki joan den astean onartu du udalbatzak.**

## Zer da Udal Barruko Euskararen Erabilera Plana?

Hitz gutxitan esateko, euskara ezagutzatik erabilerara bultzatzeko plana da. Lehenagotik langileak euskara ezagutzeko ahalgina eginda zegoen, eta orain, berriz, euskara eguneroko lanean tresna izatea bultzatu nahi dugu. Horretarako, langileak zein oztopo dituen ikusi eta lana erraztea da gure helburua.

### Zer helburu ditu planak?

Euskara zerbitzu hizkuntza izatea herritarrei begira, beste administrazioekin ere harreman hizkuntza izatea, eta Udal barruko eginkizunetan ere lan-hizkuntza izatea. Udalaren hizkuntza politika zehaztu da, eta hizkuntza irizpideak zehazterakoan, adibidez, lehen hitza beti euskaraz izan behar da, edo testuak elebidunak izan behar badute garrantzia beti euskarak izango du, edo Udalak zerbitzuak kontratatzerakoan euskara dakiten baloratuko da...



AINTZANE GARDOKI

*Euskara, zerbitzu eta harremanetarako hizkuntzaz gain, eguneroko lan-tresna izan behar da.*

**Eta nola lortzen da hori guztia?**

Lehenik eta behin, sail bakoitzean egiteko moduko helburu lorgarriak jarritz, ezin baikara

*Udalak ez luke aurrerantzean gaztelera hutsean idatzitako testurik atera beharko*

helburu potoloetatik hasi, akatsa izango litzateke. Zailtasunak sortzen dira urtetan gaztelera egin direlako testu administrazioak. Langileak sentsibilizatu behar

dira, baina traumarik sortu barik eta lanarekin ito barik.

### Zein da egungo errealitatea?

Azkenengo urtetan asko aurreratu da. Gaur langileen artean euskaraz lan egiteko prestatuta daudenak asko dira. Lehen gaztelania hutsean lan egiten zutenak gaur euskaraz produzitzen ari dira. Testu eta dokumentuak idazten ikasteko saioak egin ditugu eta ari gara!

### Zein zailtasun topatu dituzu hona etortzerakoan?

Testu administrazioekin topo egitea. Askotan ez dira ulertzen gaztelera, eta euskaraz ere, horren itzulpen zehatza egin ohi da. Horrekin apurtu nahi izan dugu eta denontzat ulergarriak diren ereduak sortu. Bestetik, langileek ondo hartu naute, ahalegin handia eskatu zaie, baina laguntza ere eskaini zaiela uste dut. Oso jarrera baikorra izan dute.

### Herritarrek zer irabaziko du?

Hizkuntzari dagokionez, udalarekin euskaraz egiteko aukera izatea. Gainera, askotan euskaldunenak ere Udaltxean lehenengo hitza gaztelaniaz egiteko ohitura du, administrazioa beti lotu baita gaztelaniarekin, eta orain ez da horrela. Gure langileak prestatuta daude eta euskaraz egiteko eskatuko nieke herritarrei.

### Merezi izan du lanak?

Askok. Pertsonalki ere, beste mundu bat, administrazioa, eza-gutzeko aukera izan dut.

## LABUR

## Azken osoko bilkuran gai ugari landu eta onartu ditu udalbatzak

Udalak egin duen azken osoko bilkuran gai ugari izan ditu mahai gainean. Besteak beste, eta goian azaldu dugunez, Euskararen Erabilera Plana onartu zuen.

Baina aurreko aktak onartuz hasi zuten batzarra. Udal Liburutegia lekuz aldatu behar dela eta, obren exekuzio kontra-

tua aldatzeko proposamena ere onartu zuten batzarkideek.

Bi mozio ere aurkeztu zituzten: bata, Euskal Nortasun Agiria Udaltxean bertan ateratzeko aukerari buruzkoa, eta bestea, izatezko bikoteen erregistroan sexu berekoek izena emateko aukeraren ingurukoa.

## Antzerkia, musika eta kirola nagusi San Frantzisko eguna ospatzeko Almenen

Aste honetan San Frantzisko Xabier izan dela eta, astelehenean maki-natxo bat ekintza eta ikuskizun egin zituzten Almeneko ikastolako ikasleek. Jose Aranako txikienek ere ez zioten kale egin Nafarroako santuari.

Zikloka aritu ziren ikasleak, eta denetarik izan zen bertan. Partiduak, bideo emanaldiak, antzerkia eta musika nagusitu ziren goizean zehar. Artista ugari ikusteko aukera izan zuten ikasleek. Paulina Rubio abeslari mexikarra ere Almenera etorri zen bere azken diskoa aurkeztera. Arratsaldean jai izan zuten guztiak.

## LENIZ, C.B. KONPONKETAK

**LENIZ**  
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA  
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

SAIÒN DE BELLEZA  
OSASUNA ETA EDERGINTZA  
**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 behea  
ESKORIATZA  
Tfnoa.: 943 71 51 20

Hnos. SAJERAS, C.B.

**Margogintza  
Dekorativo eta  
Industrial**

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA  
Tel.-Faxa: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Mobila: 608 92 11 18

## KULTURA

## Anaitz Alvarezek irabazi du marrazki lehiaketa

AINTZANE GARDOKI

Eskoriatzako Udalak antolatutako Gabonetako marrazki lehiaketan Anaitz Álvarez gatzagarriak irabazi du Lehen Hezkuntzako 3. mailari dagokion saria.

Lehiaketan Eskoriatzako eta Gatzagako Lehen Hezkuntzako umeei hartu dute parte, hau da, sei eta hamabi urte bitartekoek.

Anaitzek berak esan digunez, txikitan asko marrazten zuen, baina orain gero eta gutxiago marrazten du, eskolako lanek ez diotelako denborarik uzten. Begi handiak dituen Olentzero hartu du marrazkiaren protagonista: "Horrela, Olentzerok errazago aurkituko du Gatzaga eta, agian, nirekin hobeto portatuko delako", dio Anaitzek. Errotulagailuak erabili ditu, nagusiki, marrazkia egiteko: "Errotulagailuak, akuarelak, margoak, ... nahastea gustatzen zait, eta lurrean etzanda margotzea gustatzen zait, gainera.

Etxean berak egindako marrazki ugari izango dituela galdetzean, hauxe dio: "Bai, hoz-



Anaitz, pozik, marrazkia eskuetan duela.

kailuko atea beteta daukat, baina gelan ez daukat, amak ez didalako uzten, baina Olentzero jartzen utziko didala esan dit. Nagusitan marrazkilaria izan gurakoluke Anaitzek. Lehenengo pausotxiki bat eman du dagoeneko.

Orain, Eskoriatzako dendetan gastatu ahal izateko 7.000 pezetako saria du; autoak eta margoak erosiko ei ditu diru horrekin. Saritu dituzten marrazki guztiekin erakusketa egingo da Eskoriatzako kiroldegian Gabonetan.

AINTZANE GARDOKI

## LABUR

## Pilotariak auzolana egin eta gero indartsu ibili ziren

Bikote batzuk beste batzuk baino indartsuago ari badira ere, inork ez du atzera egiteko asmorik.

**Emaitzak:** Tarrantxa eta Mikel 22, Salva eta Joxerra 7, Iñaki eta Agarre 22, Goio eta Oñate 12, Artabilla eta Jon 22, Matxain eta Asier 13, Beloki eta Unai 22, Iñusti eta Patas 12. Amabirjinaren zubia dela eta, bi egunetan, ostegun eta larunbat arratsaldean jokatu dira partiduetak.

## J.I. Beloki izango da beste lau urtez Bake Epailea

Jose Ignacio Belokik Eugenio Otxoari hartu zion Bake Epailea izateko txanda. Gustora aritu zen nonbait, izan ere, udalak egindako deialdi publikoan berriro bere burua aurkeztu baitu. Bera izango da beraz, datozen lau urtetan Gatzagako Erregistro Zibilaz, hau da, dauden jaiotza, heriotza, ezkontza eta beste arduratuko den pertsona.

## BOTEPRONTOAN



## Benedikto Elkorobarrutia

Jubilaua

Oin dala urte batzuk jubilau zan, eta ez dauko aspertzeko astirik. Gatzagan bizi da, baiñe gustora juten ei da Benidormera.

**Elkorobarrutia abizena haundixe dala Gatzagan.**

Altueran txiki samarrak gare ba!

**Kalie bai, baiñe lana ahalik eta gutxien.**

Lana prohibidute egon biherko leuke. Lehen nahikue egindakue naz.

**Oin, jubilaute, aspertu be egingo zara, ala?**

Lehen baiño hobeto bizi naz, oporretan be urtien pare bat aldiz, gutxienez.

**Eta nora faten zara gustora?**

Mojacarrera eta Benidormera, horratxe bai!

**Herriko kontu danak ei dakizu?**

Gatzagan Benedikto asko ete dagozen...

**Euroari bilddurrik?**

Lehenago be zentimuekin ibillittakuek gare.

**Hogei urte euki ezkeru?**

Uf! Eta oin dakitten guztixe jakindde, zerbait egingo neuke bai, horraittio.

**Soldau fan aurretik 1,80 neurtzen ei zeuen.**

Bai, eta handik 1,64kin etorri nitzen, eta kilotan, barriz, aldrebes, 64kin fan eta 89kin etorri.

**Konstituziñue ala Amabirjinaren egune?**

Jai emuten dauen danak.

AINTZANE GARDOKI

## HERRITARREN HITZA / Alberto Oñate

## Kotxeko bentanatik

Guzurre emuten dau gure bailara moruko lur zati exkas baten horrenbeste errepide eta eraikuntza lan topetiek. Gure eguneroko eginkizunetan bailarara jaisten garenian batzuk, ala noizien behin doiezenian beste batzuk, obraz ingurutute gazela konturaketan gare. Errepidian, edozien ataskotan sartute, gure kotxeetako bentanetatik ikusi geiken errealitatia da hau. Kamioiek ta eskabadorek, gure txikitako txoko zoragarriek sustarretatik astinketan ditzue, lokatz, ure ta bustiñez betetako zulo

bihurtuz, "betiko" paisajia, betiko aldatuz. Atzora arte hor auen mendixue gaur kamioetan sartu ta auskalo ze zulo tapetan eruen daue, errekiak, barriz, fan zan astetik, bi errebuelt gutxiau dauko "fibra optika" kable miragarri batzui biria ixteko.

Han nun plaza barri bat, harutzeu, barriz, bi parke barri, hiru industrialde barri herri urteeran, ta hurrengo herriko



"Lau etxebizitza bloke, bost aparkaleku, sei zubi, zazpi errotonda, ... hogeta bat haixe errota, kanpusa, superkanpusa, tren, tranbia, autopista, aireportua... Hurrengo baten Atxabaltatik Oñatira fateko Urkulu urtegixen azpitxik tunel barri bat ein bihar

dauela esango balustie be, sinistu ingo nauce. Hori bai, kristalezkue izan daila, ur


sarreran, gauza bera dala, lau etxebizitza bloke, bost aparkaleku, sei zubi, zazpi errotonda, ... hogeta bat haixe errota, kanpusa, superkanpusa, tren, tranbia, autopista, aireportua... Hurrengo baten Atxabaltatik Oñatira fateko Urkulu urtegixen azpitxik tunel barri bat ein bihar

azpitxik pasetan dauen horretakue, marrazuak amorrainak ta, zergatik ez, paitte be ipurdixe ikusi ahal izateko. Donostiako akuariumien moruen. Ke letxes!

Ez naz zorion ala zoritxarra ekarriko doskuen progreso baten aurrien gazen esaten ausartuko, ezta eskabadora horretako bat geldi eukittiek zenbat kostetan dauen neurketan hasiko be, horretarako ni baino adittuau asko daz ta; baina eztakit neuk, paisajie aldaketan doien heinian gu geu be berakin kanbixetan hasitta gazen. Biharbada, urbanuauak bihurtetan.

**FAGOR**

Fagor Ederlan, S.Coop



**MONDRAGON**  
AUTOMOCION

**AUTOENDAKO OSAGAIK**


Gaztainadui, 42 • 20540 ESKORATZA • Tel.: 943 71 90 00

**Golo**  
gazte moda

Tel.. 943- 71 45 61



## Ongizate Aurrezkia




Zinkezko akaberadun luxuzko  
5 pieza zurezko oinarekin

- Patatak zuritzekoa
- Kraskagailua
- Kortxoak ateratzekoa
- Lata-irekigailua
- Berakatzak txikitzekoa

## Ongizate Opariak

**SUKALDERAKO OSAGARRIAK • 325.000 PTA. SARTZEAN (1.953,29 € )**

Ongizate Aurrezkia irekitzeagatik edo horren saldoa handitzeagatik • Promozio honek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan egiten diren lehen 10.000 eragiketentzat bakarrik balio du • Eskudirutan edo beste entitate bateko txeke bidez egiten diren diru-sartzeek baino ez dute balio, betiere promozioan eskatzen den gutxieneko kopurua osatzen badute • Ez dute balio kontuen arteko intsuldaketek, ezta jada helbideratuta dauden edo aldian behin egiten diren sarrerek • Pertsona fisikoentzako bakarrik • Pertsonako gehienez opari bat • Euskadiko Kutxak konpromisoa hartu du hausnartzeko 15 egun emateko, gustura egon ezean eragiketa ezeztatu ahal izateko.

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin elkarlanean

**TDCi**

**Common Rail berria**  
**130 CV**



lider **naturala**

**MUGARRI**



DEBA GARAICO  
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

[www.mugarri.es](http://www.mugarri.es) / [mugarri@mugarri.es](mailto:mugarri@mugarri.es)